

.../2017 Foru Agindua, .....aren ....koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntzako kontseilariak apirilaren 19an emandako 50/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen da.

Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 Foru Aginduaren 6. artikuluko 8. apartatuan ezartzen da errekupeazioa egiteko tresnak izanen dituztela irakasgai guztiek, azken ebaluazio arruntaz eta bereziaz gain. Foru agindu horrek Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen du.

Azken ebaluazio bereziaren deialdiaren probak ekainera aurreratu izanak hilabete horretan azterketa kopuru handiagoa egin beharra eragin du.

Hirugarren ebaluazioko errekupeazioaren amaieraren data eta azken ebaluazio arrunta egitekoa gertu daudela kontuan harturik, hau da Ebaluazioari buruzko Foru Agindua aldatzeko proposamenaren xedea: ikastetxeei aipatu azken ebaluazio arrunta hirugarren ebaluazioa errekupeatzeko tresna gisa erabiltzeko aukera ematea, curriculum ematea optimizatzeko.

Antolamenduaren, Orientazioaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du foru agindu hau onets dadin, zeinaren bidez Hezkuntzako kontseilariak apirilaren 19an emandako 50/2017 Foru Agindua aldatzen baita. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoan diharduten

ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen da.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1 g) artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT

Artikulu bakarra. 50/2017 Foru Legearen 6. artikuluko 8. apartatua aldatzea.

Hezkuntzako kontseilariak apirilaren 19an emandako 50/2017 Foru Aginduaren 6. artikuluen 8. apartatua aldatu da, eta honela agertuko da:

"8. Hiru hilabeteen behin errekupeazioa egiteko tresnak izanen dituzte irakasgai guztiek, azken ebaluazio arruntaz eta bereziaz gain, hirugarren ebaluazioko errekupeazioaren kasuan izan ezik, ikastetxeek aukera izanen baitute ebaluazio hori azken ebaluazio arruntean egiteko. Horretarako, irakasleek, koordinazio didaktikoaren departamentuko buruak koordinatuta, jaso behar dute beren programazio didaktikoetan nola errekupeatu behar diren hiru hilabeteen behingo ebaluazio bakoitzean gainditu gabe dauden curriculumeko elementu ebaluagarriak. Hiru hilabeteen behingo ebaluazioetan aurreikusitako helburuak, gaitasunak, edukiak eta ikaskuntzaren estandarrak ebaluatzearen ondorioz, ikasleak kalifikazio negatibo bat eskuratzen duenean eginen da errekupeazio prozesua."

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2017ko                      aren      (e)an.

HEZKUNTZAKO KONTSEILARIA

María Solana Arana